

EUSKARA

DENBORA NOLA ADIERAZI

Azalpena adi irakurri eta kontuan hartu nola erantzuten diren galderak.

NOIZ? NOIZTIK?

- **Noiz** galderari erantzuteko:
 - *Noiz etorriko dira? **Bihar** zortzietan etorriko dira.*
- **Noiztik** galderari, berriz:
 - *Noiztik daude hemen? **Atzotik**, zortzietatik daude hemen.*

NOIZ ARTE? NOIZKO?

- **Noiz arte** galderari erantzuteko:
 - *Igandera **arte** geldituko dira hemen, arratsaldeko **bostak arte**.*
- **Noizko** galderari erantzuteko bi era daude:
 - *Noizko ogia da? **Igandeko** ogia da.*
 - *Noizko egin behar da idazlana? **Ostiralerako**.*

Testua irakurri eta erantzun galderei, orduak emanaz. Oso **adi irakurri** behar duzue orduak zeintzuk diren jakiteko. Animo!



Puntualtasun falta

Peru, Kerman eta Naiara antzezlan bat ikusteko gelditu dira.

Antzezlana seietan hastekoa zen, baina Kerman oso goiz agertu da antzoki aurrean: antzezlana hasi baino ordu erdi lehenago. Handik hamar minutura Naiara azaldu da. Elkarrekin zain egon dira, Peru noiz agertuko, baina azkenean aspertu egin dira eta antzezlana hasteko bost minutu falta zirenean, barrura sartu dira.

Guztiak eserita eta argiak itzalita zeudenean iritsi da Peru, estu eta larri. Eskerrak antzezlana bost minutu beranduago hasi den!

- Noiz heldu da Kerman antzokira? _____
- Noiztik noiz arte egon dira Kerman eta Naiara elkarrekin zain? _____
- Noizko hasi behar zuen antzezlana? _____
- Noiz hasi da azkenean? _____

2 Aztertu kartela eta erantzun galderei.


- Noiztik noiz arte egongo da antzezlan ikusgai?

- Zein egunetan izango da funtzioa seietan?

- Noiz egongo dira bi funtzio?

- Zein ordutan izango dira funtzioak?

- Noizko sarrerak ote dituzte Peruk, Kermanek eta Nalarak?



MAIATZA, 12-13-14

Ostirala eta igandea 18:00

Larunbata 18:30 eta 21:00

3 Irakurri erantzunak eta osatu elkarrizketa galdera egokiekin.

- _____
Txiki-txikitatik izan nahi nuen antzezle.
- _____
Eskolan nengilenean hasi nuen nire antzezle-karrera.
- _____
Erretiroa hartzeko ordua heldu arte jarraituko dut antzeztan.
- _____
Datorren udazkenerako estreinatuko dut nire antzezlan berria.



Pentsatu eta erantzun galderei koadernoan.

- Noiz egon zinen azkeneko aldiz zineman?
- Noiztik dakizu bizikletan ibiltzen?
- Noizko uzten dituzu etxeko lanak?
- Noiz pasatzen duzu denbora gehiago telebistaren aurrean?
- Noiztik noiz arte irauten dute udako oporrek?

s, x, z, ts, tx, tz

1 Jarri testuan falta diren s, z, x, ts, tz eta tx letrak.


Planetariumera joango naiz

☐o☐keta batean lehen ☐aria egokitu ☐ait eta e☐e☐ jakin
☐er den? Planetariumera joateko ☐ei ☐arrera. Gura☐oak eta
e☐ekoak gonbidatuko ditut nirekin etor☐en.

E☐pa☐ion☐i batetik i☐arrak eta planetak iku☐tea
be☐alakoa dela e☐an didate, gu☐ti☐undigarria! Ez dakit
☐an☐etan ari diren, niri adarra jo nahian, ez bainai☐inoi☐
horrelako leku batean egon. ☐alan☐a bat ere badaukat:
ka☐koa eraman behar ote dut, a☐tronautek be☐ala?

3 Osatu hitz gurutzatuak.

- 1.- Ekaltzetako deskarga elektrikoa.
- 2.- Dirua gordetzeko ontzia.
- 3.- Mukiak kentzeko egiten dugu.
- 4.- Ur-masa gazi handia.
- 5.- Ilea garbitzeko xaboi berezia.
- 6.- Geure burua ikusteko erabiltzen dugun tresna.
- 7.- Hortz arteko janari-hondarrak kentzeko makilatxo.
- 8.- Gorputzetik kanporatzen dugun likido horixka.



IPUINETAKO PERTSONAIAK

1 Irakurri deskribapenak eta idatzi azpian pertsonaien izenak. Nori buruz ari gara?

Txikitxo, baina nahiko harroputza da. Beti haserre da-goela dirudi, baina bromazalea izaten badaki. Txaparroa izateko, oso gihartsua da eta bizi-bizia.

Oso iletsua da: adats eta bizar luzeak ditu. Begiak ilunak, sudurra zorrotza eta ahoa handia. Itxuraz ez da oso ederra, baina bihotz onekoa da.



MATTIN GOTOR

Lehen begiratuan beldurgarria da. Aho itzela eta hotz zorrotzak ditu eta tamaina ere handi-handia du. Hala ere, onkotea eta lasaia da.

Tripaundi galanta da: egun osoa ematen du jaten eta, horregatik, bihotzerrea egiten zaio eta sua botatzen du ahotik.

Oso lagunkoia da eta beti dago laguntzeko prest.



TRAGARROI

Deskribatu bi pertsonaiak zuen hitzak erabilia bakoitza bi lerroetan. Ez du balio goiko deskribapenetatik informazioa erabiltzea.

Tragarroi:

Mattin Gotor:

3 Aukeratu irudiko pertsonaia deskribatzeko egokiak iruditzen zaizkizun hitzak.

- | | | |
|-------------------------------------|---------------------------------------|------------------------------------|
| ☐ ausarta | ☐ kakatia | ☐ buruargia |
| ☐ ahula | ☐ lodikotea | ☐ lotsatia |
| ☐ hitzontzia | ☐ indartsua | ☐ berekoi |
| ☐ bizkorra | ☐ txantxazalea | ☐ alferra |
| ☐ eskuzabala | ☐ kokoloa | ☐ traketsa |
| ☐ zintzoa | ☐ isila | ☐ maltzurra |
| ☐ zekena | ☐ kokoloa | ☐ berbakoa |



Asmatu pertsonai horrentzat izena eta idatzi deskribapena osorik.

Pertsonaiekin lanean

Nur

Nur dut izena. Ez Noor, ezta Nour ere.
Nur, soil-soilik.

Nire herriaren izena zail samarra da
esaten. Larrabetzu.

Amarekin eta babarekin bizi naiz; aita
esan nahi du arabieraz. Hirurok
bakarrik. Ez dut nebarik ez ahizparik,
baina baditut lagun batzuk.

Aitona ere badut, *aitite*, gauzak
asmatzen dituen eta beti
esperimentuak egiten aritzen dena.

Eta amona ere bai, eleberriak idazten
dituen eta munduko erroskillarik
gozoeak egiten dituen.



Eta osaba bat, ordenagailuz sekulako
marrazki politak egiten dituen. Ez diot «osaba» deitzen. Aritz deitzen diot,
Aritz, huts-hutsik.

A, eta birramona ere bai, *birra*, koadroak margotzen dituen. Beste *birra* bat
ere badut, baina ez da Larrabetzun bizi.

Eta txakurrak Kuka du izena. Nirea da, baina aitonaren eta amonaren etxean
bizi da, gurea baino etxe handiagoa da-eta.

Eta ez dakit zer gehiago kontatu nitaz.

TOTI MARTINEZ DE LEZEA

Nur eta oihan misterioitsua (moldatua)

Irakurri Nurren deskribapena eta erantzun galderei koadernoan.

1. Zertaz hitz egiten du testuak?
2. Zeintzuk dira azaltzen diren pertsonaiak?
3. Nurrek esaten al du zerbait bere itxurari buruz?
4. Irakurri duzuna nahikoa iruditzen al zaizu Nur ezagutzeko?

3 Erreparatu Nurren irudiari eta aukeratu hitz egokiak. Nolako itxura du Nurrek?

- | | |
|--|---|
| ☐ Beltzarana da. | ☐ Oso azal zuria du. |
| ☐ Adats luze-luzea du. | ☐ Ilea beltza du, ikatza bezala. |
| ☐ Begi txiki argiak ditu. | ☐ Begi ilun biziak ditu. |

4 Adierazi zure ustez egokia dena. Nolako izaera du Nurrek?

- | | |
|---|--|
| ☐ Oso neska alaia da. | ☐ Kezkatuta ibiltzen da beti. |
| ☐ Geldoa eta zabarra dirudi. | ☐ Argia eta jakingura handikoa da. |
| ☐ Abenturazalea da. | ☐ Berehala kikiltzen den horietakoa da. |

Deskribatu Nur koadernoan, goiko ariketetako erantzunetan oinarrituta.

Esaldiak lotu eta eta lehenaldian (atzo) idatzi.

Gu	arkatzak erori zaizkie
Zu	elurretara joango naiz.
Ni	karpeta hartu dut.
Nik	eskolara joan gara.
Haiei	hondartzartik etorri zara.

Dagokien aditza idatzi eta jarraian esaldiak pluralean jarri. Ondoren guztiak ezekoan ipini (guztiak koadernoan burutu).

Guk liburua erosi _____
Nik argazkia atera _____
Haiek erlojua galdu _____
Zuk ordenagailua itzali _____
Zuek etxea garbitu _____
Junek Markeli arkatza apurtu _____